

Urtarrilaren 6an  
**JAUNAREN AGERKUNDEA (B)**

**Otoitza**

Jaingo Jauna, egun honetan  
 izar baten bidez agertu zenien atzerri  
 zeure Seme bakarra;  
 sinesmenaz ezagutzen zaitugunok  
 eraman gaitzazu zeure aintzaren ederra ikustera.  
 Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Is 60, 1-6

*Zure gainean ageri da Jaunaren aintza.*

Isaias Profetaren liburutik

Jaiki zaitetz, argitu, Jerusalem,  
 badator zure argia;  
 zure gainean ageri da Jaunaren aintza.  
 Begira, lainoak estalirik dauka lurra,  
 eta ilunbeak inguraturik dauzka herriak.  
 Zure gainean, ordea, Jauna jaikiko da,  
 eta Haren aintza agertuko zure gainean.  
 Zure argitara etorriko dira herriak,  
 zure egunsentira erregeak.  
 Jaso itzazu begiak zeure inguruan, eta ikus:  
 guzti horiek elkartu dira eta zuregana datoz;  
 zure semeak urrutitik datoz,  
 besoetan dakartza zure alabak.  
 Hori ikustean, gainezka poztuko zara;  
 harrituko zaizu bihotza eta zabalduko,  
 itsasoko aberastasunak zuregana etorriko baitira,  
 eta atzerrietako ondasunak zuri ekarriko dizkizute.  
 Gamelu taldeek estaliko zaituzte,  
 Madiango eta Efako dromedarioek.  
 Sabatik datoz guztiak,  
 urrea eta intzentsua dakartzatela,  
 eta Jaunari gora eta gora diotela.

ERANTZUN SALMOA: Sal 71, 1-2. 7-8. 10-11. 12-13

**R/. Ahuspez agurtuko zaituzte, Jauna,  
 atzerri guztiek.**

Emaiozu, Jaingo, zure auzia erregeri,  
 zure zuzentasuna errege semeari.

Zaindu beza zure herria zuzentasunez,  
eta zure gizagaixoak zuzenbidez. R/.

Zuzentasuna garatuko da haren egunetan,  
bakea ugari ilargia itzali artean.  
Nagusi izan bedi itsasotik itsasoraino,  
Ibaitik lehor mugaraino. R/.

Tarsisko eta uharteetako erregeek  
ekarriko dizkiote eskuikusiak,  
Arabiako eta Sabako erregeek emariak.  
Errege guztiek dute ahuspez agurtuko,  
atzerri guztiek zerbitzatuko. R/.

Onik aterako baitu, oihuka ari den jende xehea,  
eta laguntzailerik ez duen dohakabea.  
Apalarentzat eta behartsuarentzat izango du errukia,  
salbatuko du behartsuen bizia. R/.

II. IRAKURGAIA: Ef 3, 2-3a. 5-6

*Orain agertua izan da,  
ondare beraren kide direla atzerritarrak ere.*

San Paulo Apostoluak Efesotarrei

Senideok: Entzunik duzue, noski, Jainkoaren grazia zuen artean zabaltzeko eginkizuna eman zaidala. Goi agerpenez ezagutarazi baitzait niri Kristoren misterioa: Lehengo denboretan gizakiei jakin erazi ez zitzairen misterioa, orain Espirituaren bitartez Haren apostolu santuei eta profetei agertua izan zaien bezala: Jesu Kristorengan ondare beraren kide direla, alegia, atzerritarrak ere, berri onaren bidez: gorputz beraren atal eta agintzari beraren oinordekide.

EBANJELIOA: Mt 2, 1-12

**Aleluia:** Mt 2, 2

R/. Aleluia.

V/. Haren izarra ikusi dugu sortaldean,  
eta hemen gatoz Jauna gurtzera. R/.

*Erregea gurtzera gatoz sortaldetik.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Herodes erregearen egunetan jaio zen Jesus Judako Belenen. Eta orduan Mago batzuk etorri ziren sortaldetik Jerusalem, galdezka: «Non da jaioberri den judutarren erregea? Haren izarra ikusi dugu sortaldean eta hemen gatoz Bera gurtzera».

Hori entzunik, larritu zen Herodes eta Jerusalem guztia harekin batera. Eta apaiz nagusiak eta idazlariak bildu, eta Kristo non jaiotzekoa zen galdetu zien.

Haiek erantzun: «Judako Belenen. Horrela dauka profetak idatzirik:

"Eta zu, Belen, Judako bazter hori,  
ez zara inolaz ere  
Judako herri nagusietan txikiena;  
zuregandik aterako baita agintari bat,  
eta nire herri Israelen artzain izango da"».

Orduan Herodesek, Mago haiei isilka dei egin zien, izarra noiz agertu zitzaien jakiteko ahal bezain ondo; eta Belena bidali zituen, esanez: «Zoazte, eta jakin arduraz haurraren berri; eta aurkitzen duzueanean, esadazue niri, neronek ere joanda gur dezadan». Haiek, erregeri entzun ondoren, joan egin ziren. Eta bat-batean, sortaldean ikusitako izarra aurretik jarri zitzaien, haurra zegoen lekuaren gainean gelditu arte. Izarra ikusitakoan, berealdiko poza hartu zuten. Eta etxean sarturik, haurra aurkitu zuten, Maria bere amarekin; eta ahuspez jarririk, gurtu egin zuten. Eta, beren kutxak irekita erregaliak eman zizkioten: urrea, intzentsua eta mirra.

Eta Herodesengana ez itzultzeko albistea ametsetan harturik, beste bide batetik joan ziren beren lurraldera.

### **Oparigaien gainekoa**

Begi onez begira, Jauna, zeure Elizaren dohain hauei;  
beroietan ez dizugu urre, intzentsu eta mirrarik eskaintzen,  
baizik eta Jesu Kristo gure Jauna,  
opari egina eta janari ematen zaiguna.  
Errege bizi baita.

Prefazioa: Agerkundekoa

### **Jaunartze ondorengoa**

Etor bedi gure bidera, Jauna,  
nonnahi eta beti zeruetako argia,  
sakramentu honetan hartu duguna  
fede garbiz har dezagun eta maitasun zintzoz bete.  
Jesu Kristo.